Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Karmele Jaio Eiguren

Gasteiz, Araba (1970)



Aurkibidea

Biografia



Gasteizen jaioa. Gurasoak Lekeitiokoak ditu, eta etxean jaso zuen euskara. Olabide ikastolan ibili zen. Informazio zientzietan lizentziatu zen, EHUn. Hainbat komunikabidetan eta komunikazio bulegotan egin du lana. Idazlea da. Hainbat liburu argitaratu ditu 2004tik hona, ipuin bildumak zein eleberriak. *Amaren eskuak* eleberria zinemara eraman zuten 2013an. Elkarrizketatu genuenean Emakundeko komunikazio burua zen. Besteak beste euskarari, literaturari eta genero ikuspegiari buruz hitz egin genuen Jaiorekin.

Zintak

GAS-010

- **Proiektua**: Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2015-06-17
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Odria, Haizea

Pasarteak

1. Gasteizko kaleetan euskara entzutean, harritu

- **Erref**: GAS-010/003
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:01:24. **Bukatu**: 00:03:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Bera umea zenean Gasteiz ez zen batere euskalduna. Kaletik joan eta norbait euskaraz entzutean, harritu egiten ziren. Bere lagun gehienen gurasoak erdaldunak ziren eta gehienetan gazteleraz egiten zuen haiekin.

2. Gasteiztarrekiko aurreiritzia

- **Erref**: GAS-010/005
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:03:52. **Bukatu**: 00:05:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Bilbora joan zen kazetaritza ikastera. Askotan galdetu izan diote: "Gasteiztarra eta euskalduna?". Oraindik ere batzuetan badago aurreiritzi hori.

3. Euskararen egoeraren bilakaera handia Gasteizen

- **Erref**: GAS-010/006
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:05:21. **Bukatu**: 00:07:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskararen egoeraren bilakaera handia izan da Gasteizen, nahiz eta batzuetan sumatu daitekeen oraindik gaztelera dela hizkuntza nagusia.

4. Hezkuntzak eta herri mugimenduek bultzatu dute euskara

- **Erref**: GAS-010/008
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:10:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskararen garapenean hezkuntza izan da faktore garrantzitsuetako bat. Guraso asko ikasten ari dira, umeek eskolatik ekarri dutelako. Elkarte eta herri mugimenduen lana ere hor dago. Gasteizera jende asko etorri da kanpotik, eta unibertsitateak ere beste giro bat sortu du.

5. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke?

- **Erref**: GAS-010/009
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:10:49. **Bukatu**: 00:12:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gasteizen ehuneko ehunean euskaraz bizitzea ez dela posible uste du. Desberdintasuna handiak daude auzoaren arabera. Hala ere, gertatu izan zaio espero ez zuen giro batean berak gazteleraz hitz egin eta erantzuna euskaraz jasotzea.

6. Nola hasi zen idazten

- **Erref**: GAS-010/010

- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:12:28. **Bukatu**: 00:13:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Irakurzaletasunak bultzatuta hasiko zela idazten pentsatzen du. Komunikatzeko behar batetik ere sortu zitzaion idazteko nahia.

7. Atxagaren 'Obabakoak'-ek markatu egin zuen

- **Erref**: GAS-010/011
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:13:52. **Bukatu**: 00:15:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Hasiera batean gehiago irakurtzen zuen gazteleraz, beranduago murgildu zen euskarazko literaturan. Bernardo Atxagaren 'Obabakoak' edo Arantxa Iturberen ipuinak ditu gogoan eta haiekin konturatu zen euskaraz ere literatura ona egin zitekeela.

8. Euskaraz idaztearen hautua

- **Erref**: GAS-010/014
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:18:42. **Bukatu**: 00:19:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Hasieran bi hizkuntzatan idazten zuen baina momentu batean argi ikusi zuen euskaraz egin nahi zuela.

9. Idazketa prozesua

- **Erref**: GAS-010/015
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:19:51. **Bukatu**: 00:22:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Beretzat oso zaila da idatzi aurretik istorio bat hasieratik bukaerara pentsatuta izatea; idatzi ahala sortzen du istorioa.

10. Paper zuriari beldurrik ez

- **Erref**: GAS-010/016
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:22:21. **Bukatu**: 00:24:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Paper zuriari beldurrik ez dio, beti aurrera jarraitzen du. Esan nahi duena ondo adierazi ezinak ematen dio beldur gehiago. Amaitu ondoren, beti pentsatzen du hobeto egin zezakeela; zentzu horretan bere buruarekin nahiko zorrotza da.

11. 'Amaren eskuak', paperetik zinemara

- **Erref**: GAS-010/017
- **Iraupena**: 0:04:39. **Hasi**: 00:24:32. **Bukatu**: 00:29:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Karmelek idatzitako lehen nobela, 'Amaren eskuak', zinemara iritsi da. Barne mundu asko du eta akzio gutxi, eta horrek beldur pixka bat ematen zion, baina pozik geratu da. Filmatzearen egun batean bertan izan zen eta oso arraroa egin zitzaion berak sortutako pertsonaiak han ikusteak.

12. Gasteizen gero eta euskal idazle gehiago

- **Erref**: GAS-010/019
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:30:37. **Bukatu**: 00:32:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Gaur egun Gasteizen gero eta euskal idazle gehiago daude. Idazten hasten direnentzako garrantzitsua da gertuko erreferentziak izatea. Emakume idazleen kopuruak gora egitea ere garrantzitsua da.

13. Idazterakoan bakardadea nahiago du

- **Erref**: GAS-010/020
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:32:07. **Bukatu**: 00:34:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Nahiz eta Gasteizko beste idazleekin harremana baduen, lan egiteko orduan

bakardadea defendatzen du. Kanpoko influentzia asko izateak benetan esan nahi zenuena galtzera eraman zaitzake.

14. Euskal literaturaren periferian eroso sentitzen da

- **Erref**: GAS-010/021
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:34:02. **Bukatu**: 00:35:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Euskal literaturaren erdigunea ez dago Gasteizen, zentzu horretan bertako idazleak periferian bizi dira. Baina bera eroso dago periferia horretan.

15. 'Emakunde'-n euskararen erabilera gero eta handiagoa

- **Erref**: GAS-010/024
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:37:49. **Bukatu**: 00:39:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gaur egun 'Emakunde'-ko prentsa bulegoan egiten du lan eta guztia bi hizkuntzatan idazten du. Euskararen erabilera gero eta handiagoa dela nabaritu du. Lan harreman gehienak euskaraz dira.

16. Genero ikuspegiaren eragina

- **Erref**: GAS-010/025
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:39:17. **Bukatu**: 00:42:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gaur egun Emakundeko prentsa bulegoan egiten du lan eta honek eragina izan du bai bere bizitzan, bai bere lanean. Egunero lan horretan egoteak ikuspegia aldatzen dizu. Gai honekin gero eta kontzientzia handiagoa dagoela uste du.

17. Emakume eta idazle

- **Erref**: GAS-010/027
- **Iraupena**: 0:04:23. **Hasi**: 00:45:30. **Bukatu**: 00:49:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Emakume izatea idazle izatearen gainetik jartzen da. Emakumea izateagatik literatura munduan errazago daukatenaren aurreiritzia dago. Emakumeek gai eta ikuspegi berriak ekarri dituzte literaturara baina askotan ez dira ikusten gai unibertsal bezala, baizik eta "emakumeen gai" moduan.

18. Egunkarietan egiten dituen kolaborazioak

- **Erref**: GAS-010/030
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:53:18. **Bukatu**: 00:54:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Gaur egun astero Noticias taldean artikulu bat idazten du. Deian eta Noticias de Gipuzkoan euskaraz ateratzen dira beti, Noticias de Álavan, aldiz, batzuetan gazteleraz ere bai. Irakurle erdaldunak bi aste jarraian euskaraz argitaratzeagatik kexatu izan zaizkio.

19. Euskarazko liburuek harrera hobea

- **Erref**: GAS-010/031
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:54:26. **Bukatu**: 00:56:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Bere gaztelerazko liburuek harrera ona izan dute, baina euskarazkoek hobea. Euskal literatura, literatura orokorraren periferian dago.

20. Euskararekin zerikusia duen txikitako anekdota

- **Erref**: GAS-010/032
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:56:36. **Bukatu**: 00:59:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Lagun batek Karmeleren amak esandakoa gaizki ulertu zueneko anekdota barregarria.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com